



Andra Mari jaiei begirada bat euskararen betaurrekoekin

Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak! dinamikaren inplementazio maila
2022-2025 Programazioaren azterketa



Aiaraldeko jaietan euskararen presentzia bultzatzeko xedez, azken urteotako programazioa aztertu du Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseiluak. Horrekin batera, *Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak!* dinamika bultzatu du, hizkuntza eskubideak bermatu eta euskararen erabilera zabaltzeko nahiarekin hainbat neurri zehatz proposatuz.

Txosten honetan azken lau urteetako Arrankudiagako Andra Mari jaietako egitaraua aztertu dugu eta 2025ean Arrankudiaga-Zolloko Udalak *Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak!* dinamikak zehazten dituen neurriak zelan inplementatu dituen baloratu dugu. Bi ariketa hauekin egoeraren eta bilakaeraren argazki bat atera dugu, bidean aurrera egiteko ekarpen gisa.



GORA AIARALDEKO JAI EUSKALDUNAK

2024ko apirilaren 24an aurkeztu zen [*Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak!*](#) ekimenarekin bat egin zuen Arrankudiaga-Zolloko Udalak. Dinamikak jaietan euskara bultzatzeko neurri sorta zehatz bat dakar: Txosnetan hizkuntza irizpideak, ostalarientzako gomendioak, karteletan eta esku-orrietan [*Euskararen Semaforoa*](#), euskararen erabilera bultzatzeko mezuak zabaltzeko askotariko materialak, kanpaina instituzionala, kartel zirikatzaileak, esatari euskaldunak...

Arrankudiagako Andra Mariko jaietan dinamika egoki gauzatu da, hala ere zer hobetua ere badago.

- **Kanpainako materiala**

Herri bakoitzak, bere errealitatera egokituz, hainbat material zituen aukeran kanpaina aurrera eramateko: pankarta eta pegatina ofizialak, puxikak, edalontzi berrerabilgarriak eta pegatina eta kartel zirikatzaileak.

Arrankudiagako kasuan pankarta ofiziala eta kartel eta pegatina zirikatzaileak baliatu ziren soilik: edalontziak eta puxikak baztertuz. Pankarta ofizial bakarra jarri zen baina ikusgarri, eszenatoki nagusian ezarri baitzen. Kartel zirikatzaileak berriz, jai gunean jarri ziren. Pegatinei dagokionez, hauek txosnan banatu ziren.

- **Ostalaritza**

Arrankudiagan dauden tabernekin ez zen aholkatutako lanketarik egin. Ez zitzairen beraz baliabiderik eman ez eta kanpainaren nondik norakoak azaldu. Garrantzitsua litzateke lanketa hau egitea, ostalariekin bilduz paisaia linguistikoa zaindu, konpromisoak hartu eta euskarazko musika balia dezaten. Horretarako kanpainak hainbat material eta aholku ematen ditu eta horiek Arrankudiagako kasuan ez ziren baliatu, kanpainaren eragina mugatuz. Ostalariei aholku sorta biltzen duen gutuna, kanpainako materiala eta euskarazko musika zerrenda irekia helarazi behar zitzairen.

- **Euskararen Semaforoa**

Programazio ofiziala Euskararen Semaforoarekin etiketatu zen modu egokian.

- **Txosnarako hizkuntza irizpideak**

Arrankudiagako jaietan txosna bakarra dago eta bertan banatu ziren kanpainako pegatina zirikatzaileak. Hizkuntza irizpideak betetzen dira bertan eta euskal musika nagusi izaten da.

- **Esatari euskaldunak**

Ekitaldietan esatari euskaldunak izatea bermatu da.

- **Ekimena babesteko eragile eta herritarrekin argazkia**

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak eta Udalak deialdia elkarrekin egin zuten, herritarrekin kanpaina babesteko argazki egiteko. Baina azkenean ekimena ez zen gauzatu. Herritarren babesa eta inplikazioa bilatzen jarraitu beharra dago, aktibatu eta kontzientziatzeko xedez.




ARRANKUDIAGAKO

jai euskaldunak!

Dinamika babesteko talde argazkia

Entitateek abimendua adierazteko
info@aiaraldekoekuskalgintza.eus // 688 86 29 49



Abuztuak 14
Arrankudiaga
Herriko Plaza
20:15



ARRANKUDIAGAKO JAIAK

2022



Musika emanaldiak

Euskaraz %40

Beranduegi · Joxe Mendizabal · Kittu · Erromeria

Elebidunak %30

Elektrotzaranga · Gazte kontzertuak · DJ Adrian

Euskararen presentziarekin %20

Los Zopilotes Txirriaos · Plácton

Erdaraz %10

Pan con Chile

Haurrentzako ikuskizunak

Euskaraz %100

Xaibor

Helduentzako ikuskizunak

Euskaraz %100

Trapu zaharrak · Mihiluze

2023



Musika emanaldiak

Euskaraz %70

Aizkolariak · Arrakala · Idoia eta Roberto · DJ Mariscal · Erromeria

Euskararen presentziarekin %15

Ostrich Wedding

Erdaraz %15

Gavilanes

Haurrentzako ikuskizunak

Euskaraz %100

Xaibor

Helduentzako ikuskizunak

Euskaraz %100

Trapu zaharrak

2024

2025



Musika emanaldiak

Euskaraz %78

Joxe Mendizabal · Kilimak · Zirkinik bez ·
DJ Mariscal · Katilu · Alarma morea · Erromeria

Euskararen presentziarekin %11

Lokers

Erdaraz %11

Los Cazahuetes

Haurrentzako ikuskizunak

Euskaraz %100

Dantzatzeko prest

Helduentzako ikuskizunak

Euskaraz %100

Trapu zaharrak "Eutsi Ramon" · Bingo musikatua ·
Kanpamentuko proiektzioa

Musika emanaldiak

Euskaraz %72

Diskoteka · Belar hostoak · Both ·
Gora Herria · Joxe Mendizabal

Elebidunak %14

La Txama

Erdaraz %14

Tolin mariatxia

Haurrentzako ikuskizunak

Euskaraz %100

Dantzatzeko prest

Helduentzako ikuskizunak


Euskaraz %100

Bingo musikatua · Kanpamentuko proiektzioa
Bingo · Altxorraren bila




BILAKAERA


Musika emanaldiak



Umeentzako ikuskizunak



Helduentzako ikuskizunak



ONDORIOAK ETA ERRONKAK

Egitarauaren azterketak egoera positibo eta egonkor bat erakusten du. Umeentzako eskaintza % 100ean euskaraz izan da lau urteotan. Azpimarragarria da baita helduentzako ikuskizun guztiak euskaraz izan direla. Musikari dagokionez % 70 eta % 80aren artean izan da 2023tik aurrera, hor aldaketa nabarmena ikusten da eta egoera hori egonkortu da. 2022an soilik musika programazioaren % 40 baitzen euskaraz, aldaketa beraz azpimarragarria da. Kontuan hartu behar da Arrankudiagan euskararen indizea % 69koa dela eta UEMAn dagoela.

Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak! dinamikaren gauzatzea orokorrean egokia izan da. Bi alderdi aipatu daitezke hobetzeko bidean. Batetik, beharrezkoa da ostalaritzarekin lanketa bat egitea, kanpainaren nondik norakoak azalduz, baliabideak eskainiz eta neurriak proposatuz. Ostalariek paper garrantzitsua jokatzen dute jaietan eta sozializatzeko gune nagusietako bat dira, horregatik ezinbestekoa da hor eragitea, areago Arrankudiaga bezalako herri batean. Bestetik, herritarrak inplikatzeko eta dinamika sozializatzeko ekimenak eta neurriak hartzea gomendatzen da, herritarrak aktibatu, kontzientziatu eta euskararen erabilera bultzatzeko.

Arrankudiagako Andra Mari jaietako dinamika herriko gainerako jaietara zabaltzea litzateke orain erronka: *Euskararen Semaforoa* erabiliz karteletan, auzoz auzo sortzen diren jai batzordeetan dinamika azalduz, hizkuntza irizpideak ezarritxosnetan, programazioa osatzerakoan euskaldunen indizearen gaineratik egotea euskaraz programatzen denaren portzentajea, euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina eginez, paisaia linguistikoa zainduz...